

TALAIAN

Euskadiko CCOOn jarraipena

Joan den asteburuan bukatu da Euskadiko CCOOren Kongresua, batere tentsiorik gabe eta sentsibilitate guztiak batuta. Horren adibide da Unai Sordo. Idazkari nagusi berriak ordezkarien %84,32aren babesa jaso du. Era berean, José Onaindi idazkari nagusi ohiaren txostena ordezkarien %91k baino gehiagok onartu zuten. Idazkari nagusi berria 1972an jaiotakoa da eta EHU lan-harremanetako graduduna. Ordezkarien aurrean egindako lehen hitzalditik adierazi zuen jarraipenaren eta zentralitatearen alde arituko dela. Zera ziurtatu zuen: zentralitatean oinarritutako lan harreman eredu defenatuko duela, bai negoziatio kolektiboaren orduan eta baita esparru politikoan ere. Sindikatua nazionala izatea aldarrikatu zuen, nahiz eta bere jarduna Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen den, eta Nafarroan eta Espainiako Estatuan, bestelako antolaketa egiturak dituen. CCOOrentzat ikuspegi sindikaletik Iparraldea ez da existitzen. Siglak aipatu gabe ELA eta LAB kritikatu zituen, gehiengoa biltzen duten sindikatu abertzaleak.

Euskadiko CCOOko, ELAko eta LABeko idazkari nagusiak aukeratu berriak dira, belaunaldi berrikoak, gazteagoa. Ona eta baikorra litzateke industria krisiari (gorantz azkar doan langabeziari) aurre egiteko, norberak bere estrategiak mantenduz, indarrak batu balituzte. Ahalegina egin behar da kapitalismo basatiaren aurka borrokan egiteko, enplegu erregulazio espeditueen gehiegikeria saihesteko, negoziatio kolektiboan enpresen xantaia ebitatzeko, lan ezbeharren aurka borroka egiteko, eta abar.

Juan Mari Arregi

124 orduz katalanez, isildu gabe

GAUZAK ONDO BADIRA aldizkari hau jaso duzunean Lluís Colet perpinyarra jo eta su katalanez hitz egiten ariko da, etenik gabe. Asteleheneko (hilak 12) goizeko hamarretan hasi zen hizketan eta ostiralean isiltzeko asmoa du, 124 orduko Guinness errekorra jarri nahi baitu. Perpinyakoaren asmo nagusia ordea, ez da errekorra ontzea katalanaren aldeko aldarria egitea baizik. *Els catalans en discursos i poesies* izeneko hitzaldia eskaini du, ia dena katalanez, frantsesezko pasarteren bat kenduta. Lehendik ere hizkuntza eta kultura katalanaren aldeko jardunean ezaguna den Coletek leku esanguratsua aukeratu du hizketaldi luzerako: Perpinyako tren geltokia, Dalik esan zuenez, “munduaren erdigunea”.

13 milioi euro euskara sustatzeko

EUSKO JAURLARITZAKO Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 13.100.000 euro bideratuko ditu euskaren sustapenera, iaz baino %4,1 gehiago. Zati handiena, 5.725.000 euro, hedabideek jasoko dute.

BAHEA

Xabier Azanza Euskarabideako zuzendariak *Diario de Noticiasen* esanak: “[Europako Hizkuntza Gutxituei buruzko] Karta ez da berdina indarrean sartu den 23 herrialdeetan: nazio bakoitzak, berau berresten duenean, adierazten du zein artikulua betetzeko konpromisoa hartzen duen. Gutxieneko engeiamendu kopurua 35ekoa da. Espainiak, esku-zabaltasunez, 71 engeiamendu onartu zituen, bikoitza”.

Hedabide berean Koldo Martinez Euskara Kultur Elkargoko presidentek erantzundakoa: “Azanzak euskararen gaia Espainiak euskararekiko eta gainontzeko hizkuntza gutxituekiko duen eskuzabaltasuna bezala planteatzen du, baina ez hiritarren arteko justizia demokratikoko elementu gisa”.



TALLERES

Mitxelena s.coop.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000 · Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago poligonoa, 21 · Hernani -Gipuzkoa-

☎ 943 552 512 / 552 516 · Fax: 943 552 816 · info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Espainiako Gorenak: mamiari erantzuna dio, prozeduran ikusi behar

ARGAZKI PRESS

OLATZ DANOBETIA. Arnaldo Otegi, Juan Joxe Petrikorena, Rufi Etxeberria eta Fernando Barrenak lau urteko espetxe eskaera zuten azkenean "Bileren auzia" deitu den honetan. Ia hiru urteko eskaera zuten lbarretxe lehendakariak eta urtebetera ez zen iristen Patxi Lopez eta Rodolfo Aresena. Auzi saioaren itxierarekin, zorionez, forma kontu batek ia lurperatu ditu eskaerok. Baina ikusi behar zer dioen Espainiako Auzitegi Gorenak, ea nola ateratzen den "Botin auzia" eta "Atutxa auzia"ren sasi juridikoetatik.

Ermuko Foroak eta enparauek argudiatuko dute EAeko Auzitegi Gorenak hankaz gora jarri duela

Espainiako Gorenak Atutxa auzian erabaki zuena. Orduan ere auzia prozedura laburrekoa zen eta herri akuzazioa bakarrik zegoen, baina Espainiako Gorenak ebatzi zuen aurrera jarrai zezakeela, auzipetzen zen ustezko delituak –Botin auzian ez bezala– ez zuela inongo pertsona zehatzik eragiten edo kaltetzen, Gorenak bera baizik.

Prozedura kontuen gainean jardun beharko du Espainiako Gorenak, eta ikusiko da nola ateratzen den atakatik. Baina mamirik ere badu auziak –hori da larriena gainera– eta Gorenak argia izan zen Manos Limpiasek Jose Luis Rodriguez Zapateroren auziperatzearen –azken negoziatio prozesuan ETA eta Batasunarekin hitz egiteagatik– eskaera atzera botatzean. Fun-



tsean, argudiatu zuen ez zegokiola botere judizialari botere exekutiboren kontrol lana egitea, horrek zuzenbide estatua desitxuratuko lukeelako, botere banaketari zegokionez, kontrol lan hori Espainiako Legebiltzarrak egin behar zuela. Orain ikusi beharko da orduko mami-ebazpen horrek nola eragiten duen oraingo forma kontu hauetan, prozedura eta mamiaren arteko lerroa fina baita sarri eta hutsala gehienetan.

DEMOKRAZIA 3.000.000 (D3M)

hautes-plataforma ere bete-betean dago lotua Alderdien Legearekin eta, PSE besteak beste, berau indarrean jartzeko eskatzen ari da noren eta Rodolfo Aresen ahotik. Bera ez zen bildu Batasuneko buru-

zagiekin, "Batasunarik ez zen esistitzen eta", ezker abertzalekoekin baizik. Hori dio elkarrizketetan. Nortzuk eta Otegi, Barrena, Petrikorena, Etxeberria eta Dañobeitia Batasuneko kide izatearen susmorik ez bazuen Aresen, zergatik orain pentsatu behar Lasheras, Lopategi, Itziar Aizpurua eta D3Mko beste hainbat Batasunaren ordezkokin zerikusirik izan dezaketenik? Pentsa dezala Espainiako Justiziak bakarrik ezker abertzaleko kideak direla eta listo.

Baina inozogia da pentsamolde hori, jakina, tartean negoziatio saiotik, gerra doinuetara pasatu garelako, gatazka gordinera, terrorismoaren itzulera-

ra... aukera beza bakoitzak bere izendapena. Ez dago berririk ezker abertzaleko ekimenean, baina legez kanpoko ezker abertzaleak politika egiteko duen tresna garrantzitsuenetakoa jartzen du abian urrats honekin. Espainiako Justiziak hauteskundeetan parte hartzeko bide formalari atak itxiko dizkio, eta gero ikusi beharko da D3Mk zer egingo duen, edo paperak egin eta bere boto baliogabea kontatu edo abstentzioa eskatu. Agian babes-tuena abstentzioaren eskaera bideratzea litzateke, egungo gatazkaren zamapean, horrek kontakteta lausagoa baimentzen duelako eta arrisku gutxiago dakarkiolako. Nahiko arrisku eta arazo du bere gain ezker abertzale nagusiak are eta gehiago bizkarreratzeko.